



Arartekoaren 2019R-2022-18 Ebazpena, 2019ko abenduaren 13koa. Horren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteko ebazpena, egiaztatu baita etxebizitza bat erosteko sinatu zuela mailegua, eta, beraz, ez zuela larriagotu bizikidetzaren egoera ekonomikoa. Halaber, ebazpen horren bidez, ohartarazi da Lanbidek eta gizarte-zerbitzuek lankidetzan aritu behar dutela.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu du, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteten dizkiotelako eta bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra ezarri diotelako.

Erosteko aukera ematen zuen errentamendu-kontratua sinatu zuen kexagileak ekainean. Kontratu horretan xedatzen zen errentariak 375 euroko fidantza eta 9.625 euroko gordailua jarri behar zituela. Etxebizitzaren azken prezioa 14.500 euro izan zen.

Ordainketa horri aurre egin ahal izateko, kexagileak 10.000 euroko mailegua eskatu zion anaiari. Era berean, Lanbideri jakinarazi zion mailegu hori sinatu zuela, hain zuzen ere, bizikidetzaren unitatearentzako ohiko etxebizitza erosteko.

Honako hauek osatzen dute bizikidetzaren unitatea: kexagileak, bere ezkontideak eta beren 5 seme-alabek — 18, 17, 13, 9 eta 5 urte dituzte—.

Lanbidek, 2018ko abuztuaren 25eko ebazpenaren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eten zion interesdunari, erakunde horren ustez herritar horrek ez zituelako bete diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izanik zituen betebeharrak, mailegu pertsonala sinatu zuela-eta. Gainera, jakinarazi zion etenaldiak 10 hilabeteko iraupena izango zuela; maileguaren zenbatekoa (10.000 €) bizikidetzaren unitateari diru-sarrerarik ez izatekotan diru-sarrerak bermatzeko errenta zela-eta legokiokeen gehieneko zenbatekoarekin (984,38 €) zatituz kalkulatu zen etenaldiaren iraupena. Halaber, diru-sarrerak bermatzeko errentarekin batera, etxebizitzarako prestazio osagarria ere eten zioten.

Bestalde, Lanbidek ebazpen berean jakinarazi zion 125 euro itzuli behar zituela prestazioak bidegabe jasotzeagatik.

Udaleko gizarte-zerbitzuek txosten bat egin zuten, eta han familiari gizarte-laguntza emate eta etxebizitza bat bilatzeko zailtasunei aurre egite aldera egindako jarduketak jaso ziren. Txosten horren arabera, anaiaren laguntza jasotzeak eman zion aukera etxebizitza erosteko. Udaleko gizarte-zerbitzuek





ziurtatzen dute herritar horrek egiatan erosi zuela etxebizitza, eta higiezin apala dela. Hortaz, ondorioztatzen dute *“En definitiva la adquisición de la vivienda tiene un carácter de necesidad social y no patrimonial, que facilitará la integración social de toda la familia y evitará su exclusión a la que actualmente le lleva la suspensión de la Renta de Garantía de Ingresos”*.

2. Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta, horren ondoren, informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, eta zenbait ohar helarazi zizkion kexaren balorazioa egin aurretik —jarraian jasoko ditugu, ez errepikatzearren—. Zehazki, kontu hauei buruzko informazioa eskatu zion:

- Azaldu zergatik eten zaion pertsona horri diru-sarrerak bermatzeko errenta; izan ere, bete ditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izanik dituen betebeharrak, jakinarazi egin baitu mailegua sinatu duela eta ohiko etxebizitza erosi duela.
- Azaldu zergatik ez diren aintzat hartu ez Lanbideren irizpideak, ez ohiko etxebizitza erosteko mailegu bat sinatzeari buruzko aurreikuspena.
- Arrazoitu zer lege-oinarri izan dituen kontuan Lanbidek prestazioa jasotzeko eskubidea 10 hilabetez eteteko.
- Noiz berrabiaraziko zaion prestazioa.
- Esan noiz ebatziko den berraztertze errekurtsoa, eta, hala badagokio, bidali ebazpenaren kopia.
- Azaldu zer jarduketa egin dituzun edo egin behar dituzun kexagileari behar bezala erantzuteko.

3. Lanbidek erakunde horretako zuzendari nagusiaren txosten baten bidez erantzun dio Arartekoari. Agiri horren arabera, 2018ko uztailaren 5ean etxebizitza erosteko 10.000 euroko mailegu pertsonala eman ziotela-eta eten zitzaizkion prestazioak interesdunari. Prestazioak 10 hilabetez eten zitzaizkion, eta etenaldiaren iraupena kalkulatzeko, maileguaren zenbatekoa (10.000 €) bizikidetzaren unitateari diru-sarrerarik ez izatekotan diru-sarrerak bermatzeko errenta zela-eta legokiokeen gehieneko zenbatekoarekin (984,38 €) zatitu zen. Horrez gain, azaldu du Lanbideren web-orriko 6.11. atalean *Maileguak* izenburupean argitaratutako irizpideak aplikatu dituela, hain zuzen ere Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko Dekretuaren (147/2010, maiatzaren 25ekoa) 45.1. artikuluan araututakoak.

Amaitzeko, adierazi du prestazioak eteteko arrazoi hori arestian aipatutako 6.11. irizpidean dagoela jasota. Izan ere, mailegu bat eskuratzeak berekin dakar betebeharrak ez betezea: baliabideak arduraz administratzeko eta bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoa ez larriagotzeko betebeharra, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1. artikuluan jasotakoa.





“Arartekoak argudiatzen duen moduan, Lanbideren irizpideetan, zenbaketatik kanpo geratzen da, ezohiko diru-sarreratzat hartuta, ohiko etxebizitza erosteko bada, arau orokorraren salbuespena bada ere. Dena den, eteteari arau orokorra aplikatzen zaio, eta lan-jarduera bat abiarazteko lokal bat erosteko bada soilik hartzen da salbuespentzat.

(...)

Prozedura honetatik eratorritako eteteak 10 hilabeteko etetea eragiten du, eta horiek igaro ondoren, dagozkion baldintzak belez gero, berriz hasteko eskaera egin dezake DSB Eren titularra izateko.”

4. Lanbideak, 2018ko urriaren 22ko ebazpenaren bidez, kexagileak jarritako errekurtsua ezetsi zuen, Lanbideren 6.11. irizpidean oinarrituta. Irizpide horren arabera, mailegu bat eskuratzeak berekin dakar betebeharrak ez betetzea: baliabideak arduraz administratzeko eta bizikidetzaren egoera ekonomikoa ez larriagotzeko betebeharrak, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.c artikuluan jasotakoa.

Errekurtsogileak argudiatu zuen ohiko etxebizitza erosteko sinatu zuela mailegua, eta, beraz, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20. artikuluan araberaren, ezin zela jo ezohiko diru-sarreratzat.

Lanbideak argudio hori onartu zuen eta egiaztatu zuen mailegu hori ezin zela jo “ezohiko diru-sarrera”tzat, baina 6.11. irizpidea hartu zuen ezespeneren oinarritzat, eta horren arabera mailegu bat eskuratzea bateraezina da eskura dauden baliabideak arduraz administratzeko eta bizikidetzaren egoera ekonomikoa ez larriagotzeko betebeharrarekin, mailegu horrek izan dezakeen xedea edozein izanik ere.

Hortaz, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Lanbideren arabera, 6.11 irizpideari –“[Lanbideren irizpideak diru-sarrerak bermatzeko errentaren gainean](#)”¹ (aurrerantzean, 2017ko irizpideak)— lotutako maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.c artikuluan oinarritzen da prestazioak eteteko ebazpena.

¹ Linean eskuragarri:

https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_criterios/eu_def/adjuntos/Irizpideak_DBE%20maiatza%202017.pdf



Beraz, erakunde horren ustez, kexagileak ez du bete betebeharrak hau: *“Eskura dituzten baliabideak arduraz administratzea, eta arretaz jardutea egoera ekonomikoa edo bazterkeria-egoera larriagoa bihur ez dadin”.*

6.11. irizpidea aplikatuz, ez da onartzen diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunek maileguak eskuratzea, arrazoi hau dela tarteko: *“DSBE inola ere ezin baita erabili ezein kreditu ordainduko dela edo ezein ordainketa geroago egiteko konpromisoa beteko dela bermatzeko”.*

Aurrerago, atal berean, honako hau ezartzen du: *“Ohiko etxebizitza erosteko edo 147/2010 Dekretuaren 20.2. artikuluan jasotako gainerako kasuetarako erabiltzen bada mailegua, ezohiko diru-sarreraren zenbaketatik salbuetsiko da zenbateko hori. Era berean, mailegua ez da kontuan hartuko, lan-jarduera bat hasteko erabiltzen bada”.*

Irizpidearen edukiari erreparatuta, erakunde honi harrigarria iruditzen zaio irizpide horren edukia aintzat hartu ez izana, Lanbidek behin eta berriro azpimarratu baitu hura aplikatu duela.

2. Arartekoaren iritziz, interesdunak ez du urratu maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.c artikuluan jasotako betebeharra. Ohiko etxebizitza oso apala erosteko mailegu txiki bat eskuratzeak —senide batengandik, gainera— ez du esan nahi, berez, baliabideak eta ondarea gaizki administratu direnik, baizik eta familiaren inklusioa eta ongizatea handitzeko inbertsioa egin dela, eta horrek, etorkizunean, bizikidetzaren unitatearen egoera hobetzea ekar dezake. Ezin dugu ahaztu bizikidetzaren unitatean 5 seme-alaba daudela, eta, beraz, alokairu-araubidetik etxebizitza baten jabetza eskuratzerako igarotzeak hobekuntza handia dakarrela ardurapean dituzten adingabeen egonkortasunari eta finkatzeari dagokienez. Era berean, mailegua amortizatu ondoren, baliabide gehiago bideratu ahal izango dituzte seme-alaben prestakuntzara eta zaintzara.

Kexagileak Lanbideri jakinarazi zion etxebizitza erosi eta mailegua sinatu zuela. Gizarte-zerbitzuen txostenean, familiaren egoeraren berri ematen da, eta adierazten da etxebizitza bat erostea oso garrantzitsua dela gizarte-bazterketa saihesteko, etxebizitza bat alokairuan eskuratzeko zailtasun handiak daudelako.

Eusko Legebiltzarrak etxebizitzaren garrantzia aitortu zuen Etxebizitzaren Legean (3/2015, ekainaren 18koa). Lege horrek aitortzen du etxebizitzaren funtzio soziala duela. Izan ere, pertsonak eta familiek atsedenerako, familiaren elkarbizitzarako eta lasaitasunerako gune bat behar dute, kideak garatzeko eta prestatzeko, adingabeak hezteko eta gizarteratze-prozesuak dakartzan jarduerak abian jartzeko.





Gainera, aipatu beharra dago mailegua txikia dela (10.000 €), eta horrek aditzera ematen du etxebizitza apala dela. Familiaren etxebizitza-premia asetzea da maileguaren helburu bakarra, eta ez irabaziak lortzea edo merkataritzarako erabiltzea.

3. Mailegu hori sinatzeak berekin ekarri du diru-sarrerak bermatzeko errenta 10 hilabetez etetea, honako hauek aplikatuz —Lanbidek Arartekoari igorritako txostenean dioenez—: Lanbideren web-orriko 6.11. atalean argitaratutako irizpideak eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 45.1 artikulua.

Maileguaren zenbatekoa (10.000 €) bizikidetzta-unitateari diru-sarrerarik ez izatekotan diru-sarrerak bermatzeko errenta zela-eta legokiokeen gehieneko zenbatekoarekin (984,38 €) zatituz kalkulatu da 10 hilabeteko iraupena.

Etenaldiaren iraupena kalkulatzeko, irizpideen 6.11. atalean jasotako irizpideari jarraitu zaio. 45.1. artikulua, berriz, honako hau ezartzen du: *“Ordainketa etetea eragin duten zirkunstantziek irauten duten bitartean jarraituko du eteteak, gehienez ondoz ondoko hemezortzi hilabeteko aldirako, eta hori igarotakoan, prestaziorako eskubidea azkenduko da.*

Etenaldi-kasu bat gertatu bada, baina etendura egiteko garaian kasu hori desagertu bada edo berehala desagertzekotan badago, prestazioa eten ahal izango da kasuaren ezaugarrien arabera ezarriko den aldi batez, eta aldi hori ez da inola ere ez-betetzearen kausa den iraupena baino handiagoa izango.”

Etenaldiaren iraupena 6.11. ataleko irizpidearen arabera kalkulatzeko, Arartekoaren iritziz, ez du lege-oinarririk. Horren harira, garrantzitsua da gogoraraztea Lanbidek [informe-diagnóstico](#)², *Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017 izeneko dokumentuan adierazitakoa.*

Hain zuzen ere, arauk ez zuten argitzen zenbat iraun behar zuen etenaldiak, Arartekoak gomendatu zuen 2017ko diagnostiko-txostenean jasotako araudia aldatzeko proposamenetatik honako hau aplikatzea:

44. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen etenaldiaren iraupena argitzea, etenaldi-kausa bakoitzari dagokionez, eta etenaldi horrek iraupen zehatza duen kasuak eta prestazioa jasotzeko eskubidearen etenaldi hori eragin zuen kausa indargabetu arte mantentzen den kasuak bereiztea.

² Hemen eskuragarri:

http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf



4. Familia bi helduk eta beren ardurapeko bost seme-alabak osatzen dute. Ukaezina da etxebizitza erosteak adingabe horien bizitza hobetu duela, bizileku egonkor bat izan baitezakete. Haurren premiei buruzko zenbait azterlanetan, hori ezinbesteko elementutzat jotzen da arreta egokia jaso eta beren eskubideez goza dezaten. Gainera, udaleko gizarte-zerbitzuen txosten bat ere bada, eta, haren arabera, etxebizitza erosi izana oso positiboa da gizarteratze-prozesuari begira.

Hori dela eta, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du, berriro ere, adingabeen interes gorenerako eskubidea aipatzea; eskubide hori Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean (*“Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman”*) jorratzen da.

Haurren arloan adostu diren nazioarteko tresnak aplikatuz gogoeta hori indarrean ote zegoen aztertu zen gomendio horretan. Horrez gain, berriz ere aipatu zen oso garrantzitsua dela gure ordenamendu juridikoan (Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa, Haurren Eskubideei buruzkoa; uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa; urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa) ageri den adingabearen interes gorenerako eskubidea kontuan hartzea, eta haxe gomendatu zen berariaz: *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteari eta iraungitzeari buruzko erabakietan, bizikidetzaren unitatean haurrak daudenean, adingabearen interes nagusia ebaluatu dadila, interes hori lehentasunez jotzat jo dadila, eta neurtu daitezela prestazioen onuradun diren bizikidetzaren unitatearen kideek (haurren gurasoek edo tutoreek nagusiki) betebeharren bat ez bete izanagatiko hausteak”*.

Berriz ere egiaztatu da Lanbidek ez duela bete Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorra, eta Lanbidek ez duela aintzat hartu adingabearen interes gorenerako eskubidea.

5. Laburbilduz, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eten dio kexagileari, jo baitu herritar horrek ez dituela arduraz administratu eskura zituen baliabideak, eta ez duela arduraz jokatu egoera ekonomikoa edo bazterketa-egoera larriagotu ez zedin, 10.000 euroko mailegua sinatu duelako etxebizitza bat erosteko. Izan ere, erakunde horren ustez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek ezin dute etxebizitzarik erosi, nahiz eta —kasu honetan bezala— etxebizitza oso apala izan. Arartekoa ez dator bat Lanbidek egin duen interpretazioarekin, aitortu egin baita etxebizitza bat erosteak funtzio soziala duela.

Gainera, Lanbidek ez du kontuan izan 2017ko irizpideetan ezarritakoa, alegia, **ohiko etxebizitza erosteko maileguak ez direla ezohiko diru-sarreratzat hartu behar**, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 20.2. artikulua —berariaz





jasotzen du agindu hori— aplikatuz, eta horrek agerian uzten du modu inkoherentean aplikatu dituela 2017ko irizpideak.

Azkenik, lege-oinarririk ez duen irizpide bati jarraituz kalkulatu du Lanbidek etenaldiaren iraupena.

* * *

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arartekoak Lanbideri gomendatzen dio berriz azter dezala kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eteteko ebazpena. Izan ere, egiaztatu da pertsona horrek ohiko etxebizitza erosteko sinatu zuela mailegua, eta, beraz, ez zuela familiaren egoera ekonomikoa larriagotu; aitzitik, udaleko gizarte-zerbitzuen txostenarekin bat, segurtasun eta egonkortasun handiagoa eman zion.

Arartekoak gogorarazten du garrantzitsua dela adingabearen interes gorenerako eskubidea aplikatzea eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzea —funtzio hori nabarmena da bost seme-alaba ardurapean dituen familia honen kasuan—, eta ohartarazi du Lanbidek eta udaleko gizarte-zerbitzuek lankidetzan aritu behar dutela.

